

Haurdunaldi subrogatua

Teknikaren aurrerapenak mundura etortzeko moduak ere aldatu ditu. Horren eraginez gizartea antolatzeko sortutako egiturak eta legeak aldatu beharrea gaude. Jarduera honen helburua da gaiari buruzko informazioa jaso, partekatu, kontzeptuak argitu eta norberaren iritzia ematea eztabaida baten, aldeko edo kontrako argudioak emanez.


Jardueraren atalak:

- Kontzeptua argitu elkarrekin eta bizipenak partekatu.
- **Informazioa** osatzeko testu batzuk irakurri eta bertako informazio nagusia azaldu ikaskideei.
- Gaiari lotutako hiztegi nahiz esamolde berezietz jabetu
- Gaiaren inguruko **iritziak** jaso. Irratsaio bateko pasarteak entzun. Iritzien modulazioari arreta eman.
- Foro ireki bateko mezu-kontrajarriak irakurri eta sailkatu **alde/kontra** dauden adieraziz. Bide batez, norbere iritzia sendotzeko argudioak bildu.
- Zortzi baieztapen sailkatu eta iritzi-esaldiak idatzi.
- Eztabaidarako baliabideak gogoratu eta iritzizko esaldietako sintaxia gogoratu.
- Eztabaida burutu taldean. Nahi izanez gero, idazlana garatu.



Zer da haurdunaldi subrogatua?

Lehenik eta behin “haurdunaldi subrogatua” zer den argitzen saiatuko gara. Horretarako taldetxotan bilduta gure usteak eta gaiaren inguruko bizipenak partekatuko ditugu. Gainera, gaiarekin lotutako hitzak eta kontzeptuak bilduko ditugu, denon artean mapa semantiko osatuz. Bukatzeko adostu definizioa.



Informazio bila (Ibon eta Gorka)



Iritzi eman ahal izateko gaiaren inguruko informazioa biltzea beharrezko da. BERRIA egunkarian (2017/05/21) argitaratutako erreportajea eta Euskadi Irratiko Faktoria saioan emandako elkarrizketak erabiliko dira horretarako.

Testu idatziak lehenik. Lau testu datoz gaiaren alderdi desberdinak ukitzen dituztenak. Ikasle bakoitzak bat irakurri behar du eta ondoren informazio nagusia ahoz azaldu testu hori irakurri ez duten ikaskideei. Irakurri ez dituzten testuetako informazioari buruzko datu nabarmenak jasoko dituzte galderei erantzun ahal izateko.

Testuen ezaugarriak:

- 1) **Ibon eta Gorka.** Kasu baten narrazioa.
- 2) **Kaliforniako ama-subrogatzaileak.** Testu preskriptiboa, araudia.
- 3) **Gure inguruan.** Hemengo egoeraren datuak.
- 4) **Legeak.** Munduan ematen diren 3 lege-egoeren laburpena.

berria

Ibon eta Gorka

Ibon eta Gorka —asmatutako izenak dira, elkarrizketatuek hala eskatuta— urtebete eskaseko bi umeren gurasoak dira. Bikiak iazko udan jaio ziren Las Vegasen (AEB), gurasoetako bakoitzaren hazitik eta emaile anonimo baten obuluetatik; erditu, ordea, bertako emakume bat erditu zen haietaz. Gaur egun, Gipuzkoako herri txiki batean bizi dira bi aitekin.

Ibonen eta Gorkaren haurrak sabelean hazi zituen emakumea Las Vegasko luxuzko hotel bateko segurtasun burua da: «Soldata ona zeukan, ez zuen hura egiteko beharrik. Berak esaten zuen aurreko haurdunaldian oso zoriontsu izan zela, eta umeak ongi egongo ziren familia batera ekarri nahi zituela»....

Ibonek eta Gorkak 270.000 euro ordaindu zituzten denera. Emailearen konpentsazioaz gain, abokatuei eta agentziari ordaindu behar zaie. AEBetan, ospitaleko gastuek ere garestitzen dute prozesua, aseguru pribatuak kontratatu behar direlako. Ibonen eta Gorkaren haurrek hilabete eta erdi igaro behar izan zuten inkubagailuan: «Bikiak 31 asterekin jaio zirenez, emakumeak ez zuen soldata osoa jaso behar, haurdunaldiaren zati proportzionala baizik. Guk 40 astekoa ordaindu nahi genion, diru hori jada horretarako gordeta geneukalako eta oso ongi portatu zelako gurekin, baina abokatuek ez ziguten utzi; azkenean, azpitik eman genion dirua, berak nahi zuena eros zezan harekin»

Besteengandik jaso behar duzun informazioa

- 1) Zenbat lege-egoera daude munduan zehar?
- 2) Eredu altruista non dago indarrean?
- 3) Gure inguruan subrogazioa eta adopzioa gertatzen dira, bietatik zein ari da zabaltzen?
- 4) Espainiako gobernuaren Bioetika batzordeak zer eskatu du?
- 5) Kaliforniako ama-subrogatuen arauen arabera ama-subrogatzaileak azken unean atzera egin dezake?
- 6) Kaliforniako ama-subrogatuen arauen arabera ama-subrogatzaileak noiz utzi behar du umea intentziosko-gurasoen esku?

Informazio bila (Kaliforniako amen betebeharra)



Iritzi eman ahal izateko gaiaren inguruko informazioa biltzea beharrezko da. BERRIA egunkarian (2017/05/21) argitaratutako erreportajea eta Euskadi Irratiko Faktoria saioan emandako elkarrizketak erabiliko dira horretarako.

Testu idatziak lehenik. Lau testu datoz gaiaren alderdi desberdinak ukitzen dituztenak. Ikasle bakoitzak bat irakurri behar du eta ondoren informazio nagusia ahoz azaldu testu hori irakurri ez duten ikaskideei. Irakurri ez dituzten testuetako informazioari buruzko datu nabarmenak jasoko dituzte galderei erantzun ahal izateko.

Testuen ezaugarriak:

- 1) **Ibon eta Gorka.** Kasu baten narrazioa.
- 2) **Kaliforniako ama-subrogatzaileak.** Testu preskriptiboa, araudia.
- 3) **Gure inguruan.** Hemengo egoeraren datuak.
- 4) **Legeak.** Munduan ematen diren 3 lege-egoeren laburpena.

berria

Kaliforniako ama-subrogatzaileentzako araudia

Kontratu bat izaten dute ardatz haurdunaldi subrogatuek muinean. AEB Ameriketako Estatu Batuetakoak dira, bereziki, ezagunak. Horra, esaterako, Kalifornian horrelako kontratuak egiten direnean zein diren haurdun geratzekoak diren andreei ezartzen zaizkien konpromisorik ohikoenak:

- *Adierazi behar du eskatzen zaizkion azterketa fisiko eta psikologikoak egingo dituela.
- *Konpromisoa hartu behar du ez kointorik praktikatzeko haurdun geratzeko ahaleginetan ari den sasoian.
- *Hitzeman behar du haurdunaldia bukaerara eramango duela; bere bizitza arriskuan bada soilik eten ahalko du.
- *Konprometitu behar du haurdun dagoela ez tabakorik erretzera, ez alkoholik edatera, ez drogarik hartzera.
- *Hitza emango du: ez du zaintza eskakizunik egingo jaioko den umearen inguruan.
- *Onartu beharko du haurra jaiotzean hantxe amaituko direla guraso eskubide guztiak.
- *Bat egin beharko du honetan: umearen mesederako da hura enkargatu duten gurasoen zaintzapean uztea.
- *Ahalik eta azkarren utzi beharko du umea hura enkargatu duten gurasoen esku

Besteengandik jaso behar duzun informazioa

- 1) Zenbat lege-egoera daude munduan zehar?
- 2) Eredu altruista non dago indarrean?
- 3) Ibonek eta Gorkak nora jo zuten haurrak izateko?
- 4) Ibon eta Gorkaren umeen ama-subrogatuak zergatik egin zuen hori?
- 5) Gure inguruan subrogazioa eta adopzioa gertatzen dira, bietatik zein ari da zabaltzen?
- 6) Espainiako gobernuaren Bioetika batzordeak zer eskatu du?

Informazio bila (gure inguruan zer?)



Iritzi eman ahal izateko gaiaren inguruko informazioa biltzea beharrezko da. BERRIA egunkarian (2017/05/21) argitaratutako erreportajea eta Euskadi Irratiko Faktoria saioan emandako elkarrizketak erabiliko dira horretarako.

Testu idatziak lehenik. Lau testu datoz gaiaren alderdi desberdinak ukitzen dituztenak. Ikasle bakoitzak bat irakurri behar du eta ondoren informazio nagusia ahoz azaldu testu hori irakurri ez duten ikaskideei. Irakurri ez dituzten testuetako informazioari buruzko datu nabarmenak jasoko dituzte galderei erantzun ahal izateko.

Testuen ezaugarriak:

- 1) **Ibon eta Gorka.** Kasu baten narrazioa.
- 2) **Kaliforniako ama-subrogatzaileak.** Testu preskriptiboa, araudia.
- 3) **Gure inguruan.** Hemengo egoeraren datuak.
- 4) **Legeak.** Munduan ematen diren 3 lege-egoeren laburpena.

berria

Gure inguruan

Prozedura ez da zaila; invitro ernalketa beste andre batean egitea da. Hirugarren batean; hortxe dago gakoa. Aurreko gizaldiko 80ko hamarkadan egin zen aurkikuntza. Ikusi zen emakume batek beste baten obulua hartu eta inolako arazorik gabe eraman dezakeela aurrera haurdunaldi bat, genetikoki berea ez den ume batez erditu daitekeela. Beraz, ikuspegi zientifikotik, badira 30 urte teknika hau erabiltzen dela.

EHU Euskal Herriko Unibertsitatean Zuzenbide Zibila irakasten du Itziar Alkortak; gertutik ikertu du fenomeno. Ez du dudarik, hemen da.«Amatasun subrogatua gora doa, eta adopzioak, behera. Iaz, 800 adopzio izan ziren [Espainiako] estatuan; amatasun subrogatuaren tasa ez-ofiziala, kalkuluen arabera, milatik gorakoa da. Gogoeta eragin behar liguke». Ume horiek guztiak dira kanpoan —prozedura hori onesten duen herrialderen batean— jaiotakoak. Euskal Herrian giza ugalketa lagunduan diharduten klinikek eta arloari buruzko argibideak ematen dituzten abokatu bulegoek «aholkua eman» besterik ezin dutela egin nabarmendu du.

Ugalkortasunaren Euskal Institutuko —Onkologikoaren barruan dihardu, Donostian— zuzendari Josu Franco medikuak. «Ezin da eskaini, ez delako legezkoa. Gerta daiteke norbaitek deitzea, guregana jotzea, eta aholku eskatzea; baina guk ezin dugu inolako prozedurarik hasi. Zigortuta dago». ... Badira, ordea, jarrera abolizionistak ere: uste dute ez dela onetsi behar halako praktkarik. Asteon, Espainiako Gobernuaren Bioetika Batzordeak txosten bat atera du; nazioartean galarazi egin behar dela esan du, eta jarduera horretan diharduten agentziei zigorrak jarri behar zaizkiela.

Besteengandik jaso behar duzun informazioa

- 1) Zenbat lege-egoera daude munduan zehar?
- 2) Eredu altruista non dago indarrean?
- 3) Ibonek eta Gorkak nora jo zuten haurrak izateko?
- 4) Ibon eta Gorkaren umeen ama-subrogatuak zergatik egin zuen hori?
- 5) Kaliforniako ama-subrogatuen arauen arabera ama-subrogatzaileak azken unean atzera egin dezake?
- 6) Kaliforniako ama-subrogatuen arauen arabera ama-subrogatzaileak noiz utzi behar du umea intentziosko-gurasoen esku?

Informazio bila (Munduko legediak)



Iritzi eman ahal izateko gaiaren inguruko informazioa biltzea beharrezko da. BERRIA egunkarian (2017/05/21) argitaratutako erreportajea eta Euskadi Irratiko Faktoria saioan emandako elkarrizketak erabiliko dira horretarako.

Testu idatziak lehenik. Lau testu datoz gaiaren alderdi desberdinak ukitzen dituztenak. Ikasle bakoitzak bat irakurri behar du eta ondoren informazio nagusia ahoz azaldu testu hori irakurri ez duten ikaskideei. Irakurri ez dituzten testuetako informazioari buruzko datu nabarmenak jasoko dituzte galderei erantzun ahal izateko.

Testuen ezaugarriak:

- 1) **Ibon eta Gorka.** Kasu baten narrazioa.
- 2) **Kaliforniako ama-subrogatzaileak.** Testu preskriptiboa, araudia.
- 3) **Gure inguruan.** Hemengo egoeraren datuak.
- 4) **Legeak.** Munduan ematen diren 3 lege-egoeren laburpena.

berria

Legediak

Hauek dira subrogazioa erregulatzeko dauden eredu nagusiak:

DEBEKATUTA

Europako estatu gehienetan, printzipioz debekatuta dago subrogazioa, edo ez dago arau zehatzik; halakoetan, de facto gurasotasun legeek eragotzi ohi dute, gehienetan erditu den emakumea jotzen baita amatzat. Agirietan, beti izango da umearen ama biologikoa, intentziazko amak adopzio prozesu bat egin arren.

EREDU ALTRUISTA SOILIK

Errealitateak bultzatuta legea aldatu duten herrialdeek, oro har, baldintza zorrotzetan baimendu dute. Erresuma Batuan, Herbehereetan, Irlandan eta Danimarkan, motibazio altruistako subrogazioa soilik dago onartuta, eta epaile baten begiradapean igaro behar da guztiz. Gurasogaiek haurdunaldiaren kostuak ordain diezazkiokete erdituko den emakumeari, baina ez gehiago; akordioak publikoki eskaintzea —agentzien lana— debekatuta dago erabat.

EREDU KOMERTZIALA ERE BAI

Kasu polemikoenak dira, eta, aldi berean, ezagunenak. AEBetako bederatzi estatutan erabat libreak dira haurduntze subrogatuak eta haiekin zerikusia duen jarduera ekonomiko oro. Agentzia pribatuen bidez egin daiteke, edo norbere aldetik. Europako erregulazio hertsiek Atlantikoaz harago bultzatu izan dituzte guraso izan nahi eta ezin duten hainbat; bikote harreman heterosexual batean ez dauden askorentzat, aukera bakarrenetakoa da. Poltsikoak baimentzen badie, bederen: Families Through Surrogacy erakundearen arabera, 97.000 eurotik gora kosta daiteke saio bakoitza.

Besteengandik jaso behar duzun informazioa

- 1) Ibonek eta Gorkak nora jo zuten haurrak izateko?
- 2) Ibon eta Gorkaren umeen ama-subrogatuak zergatik egin zuen hori?
- 3) Gure inguruan subrogazioa eta adopzioa gertatzen dira, bietatik zein ari da zabaltzen?
- 4) Espainiako gobernuaren Bioetika batzordeak zer eskatu du?
- 5) Kaliforniako ama-subrogatuen arauen arabera ama-subrogatzaileak azken unean atzera egin dezake?
- 6) Kaliforniako ama-subrogatuen arauen arabera ama-subrogatzaileak noiz utzi behar du umea intentziazko-gurasoen esku?

Hitzak elkarrekin

Aurreko testuetan gaiari lotutako hiztegi berezia agertu da. Horietako asko maiz elkarrekin etorri ohi diren hitz-bikoteak dira.

Bilatu eskuineko zutabearen ezkerrekoaren segida izango den hitza, honela bikote esanguratsua osatzeko

Giza ugalketa
Ikuspegi
Intentziosko
Invitro
Baldintza
Adopzio
Ama
Emaila
Erregulazio
Jarrera

Lagundua
Abolizionista
Biologikoa
Ernalketa
Zorrotza
Gurasoa
Anonimoa
Hertsia
Prozesua
Anonimoa

Hitz-bikote horietako bi hartu eta idatzi esaldi pare bat. Ondoren partekatu ikaskideekin.

Adibidez: **Giza ugalketa lagunduaren** bidez **lesbiana bikoteak guraso izan** daitezke.

Iritziak entzun



Irratsaioan iritzia eman dute gai honekin lotura duten bi pertsonak.



Bikotean egiteko jarduera, bakoitzak hitzun baten pasartea entzun eta, ondoren, elkarri azaldu. Bakoitzak duen galdera erantzun ikaskidearen informazioan oinarrituta.

A ikaslea



Itziar Alkortari elkarrizket

Zergatik jo dute kazetariak Noeliarengana?

B ikaslea



Noelia Osesi elkarrizketa

Itziar Alkorta subrogazioaren alde ala kontra dago?

Emozioak testuan

Emozioak islatzen dira testuetan, bai hitzen bidez, bai intonazio eta keinuen bidez ere. Irratiko elkarrizketa horietan badago aldea hiztunek jartzen duten "emozio-kargan".

Pentsatzekoa zenez, Itziar Alkorta irakaslearen jardunean emozio gutxiago agertzen da, hotzagoa, arrazionalagoa da. Noelia Osesenean, ordea, beste emozio, inplikazioa ikusten da.

Jarraian datozen bi testuek antzeko baieztapena dute, badago aldea, hala ere, bien artean. Zein da Noelia Osesena eta zein Itziar Alkortarena?

...esplotaziorik gabe egitea posible da, zeren emakumeok kriterio nahikoa daukagu jakiteko horrelako gauza baten parte hartu nahi dugun edo ez. Esatea kasu guztietan esplotazioa dela, hori esatea da, emakumeak ez daukagula kriteriorik horrelako erabaki inportanteak hartzeko.

Beste alde batetik, benetan kezkarriak iruditzen zaizkit etika batzorde horretan emakumearen interesaren babesaren izenean esaten diren hainbat gauza... azkenean emakumeari hitza eman baino, subrogazio altruistaz ari naiz, esaten da horrek beti azkenean emakumearen kontra joko duen zerbait izan behar duela eta nik ez dut erabat garbi ikusten.

Zertan oinarritu zara hipotesia egiteko?

Egiaztatu zuen hipotesia irratsaioko pasarteak entzunda.



BERRIAko foroan agertutako iritziak

Egunkariko erreportaje luzearen ondoren, irakurleen foroan mezu-katea sortu zen. Irakurri eta adierazi mezu bakoitzaren iritzia zein den haurdunaldi subrogatuaren aurrean: **alde / kontra**.

Bide batez, azpimarratu argudio interesgarriak eztabaidan erabiltzeko.

FSA

Barkatuko didazue subrogaziora jo duzuenok, baina, nik ez nuke inolaz ere praktika hau legeztatuko. Oso interesgarria da artikulu honetan ateratzen den esaldi bat: "erditu orduko, ordea, enkargua egin duen bikote edo banakoaren esku utziko du". Enkargua? Umeak Amazon bidez erosiko bagenitu bezala? Barkatu, baino ez! Umeak ezin dira enkargatu eta emakumeen uteroak ezin dira merkataritza tresna bilakatu! Eta ez da izango umeak izateko aukerarik ez dagoelako... Afrika erdiko, eta baita Txina eta Europa Ekialdeko herrialdeetako ume mordo bat norbait adoptatzeko zain daude. Eta horiek jaiok daude dagoeneko. Ez dira enkargatu behar.

Eta ez zait balio askok (gizonak, normalean) esaten duten gauza hori: eske nire antza izatea nahi dut, eske niregandik zerbait ateratzea nahi dut, e.a.

Ba, zuregandik zerbait ateratzea nahi baduzu, eman umeari familia eta hezkuntza on bat, eta utzi genetika hutsez pentsatzeari! Emakumearen gorputza ez dago salgai eta jaioberriak are gutxiago!

berria

Amaia----> FSA

Emakumeek nahi dutelako parte hartzen dute prozesu honetan, eta niri, bakoitzak bere gorputzarekin nahi duena egin dezakeela defendatzen dudanez, ondo iruditzen zait. Zergatik, prozesua ondo ulertuta, ez duzu horretan parte hartuko horrekin ados baldin bazaude? Ni emakumea naiz eta ez dut begi txarrez ikusten

Nineu ----> amaia

Ze askatasun da hori? Diruaren beharrak eta miseriak bultzatuta egiten da "hautu" hori, beraz, ez da erabaki aske bat. Goi mailako emakume burges batek bere uteroa alokagai jarriko al du inoiz? Noski ezetz! Zenbatek alokatzen du bere gorputza musu-truk? Inork ez. Miseriak jota daudenak besterik ez dira gurpil horretan sartzen. Buka dezagun behingoz ikuspegi desklasatu eta liberal horrekin, mesedez. Beharraren beharraz hartutako erabakiak ez dira erabaki askeak.

berria

FSA ---->amaia

Mezu horrekin diru truke emakumearen gorputzarekin edozer egin daitekeelaren ideia zabaltzen delako. Gauza bera gertatzen da prostituzioa legeztatzea defendatzen dutenekin: emakumeek haren gorputzarekin edozer egiteko askatasuna daukatela aldarrikatzen dute, eta azkenean mafiak dira irabazten ateratzen direnak, eta emakumeak esklabo gisa dihardute.

Imanol --> FSA

Egia oso borobila diozu: "Afrika erdiko, eta baita Txina eta Europa Ekialdeko herrialdeetako ume mordo bat norbait adoptatzeko zain daude". Nik, halere, "nonbait" gehituko nioke horri. Zergatik? 1. Ez delako hain erraza: baldintza asko -gehiegi askotan- eskatzen dituzte adoptatu ahal izateko herrialde gehienetan, baita estatuan ere: halako etxea, halako egoera ekonomiko eta laborala, bikote edota heterosexuala izatea... eta batez ere dirua, diru mordoa. 2. Gehienetan adopzioaren inguruan ere negozioa, esplotazioa eta mafiak

Amaia --> Imanol

Zurekin guztiz ados nago... Adoptatzea oso prozesu zaila da, baldintza asko bete behar dira, eta ulertzen dut jendeak azkenean horri uko egitea, batez ere zurea den haur biologiko bat edukitzeko aukera egonda. Kasu askotan adopzioekin urteak pasatzen dira tramiteak egiten, azkenean estatu horretan legea aldatzeko eta ezer ez lortzeko.

Argudioak alde eta kontra

Baieztapen hauek orain arte irakurritako testuetakoak dira. Zeintzuk erabil daitezke subrogazioaren alde eta zeintzuk kontrako? Jarri, baita ere, zerekin zauden zu ados.

Legeztatzearen	Alde	Kontra	Ados nago
umeak ezin dira erosi	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Haurdunaldi subrogatuak umeari kalte egiten dio	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
umeak adoptatu daitezke	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
emakumea naiz eta nahi dudana egin dezaket nire gorputzarekin	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
adopzioa ez da erraza	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
guraso izatea ez da eskubidea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
nire odoleko umea nahi dut	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Idatzi orain zerekin zauden ados zu; idatzi esaldi baten barruan.

Adibidez: *Nire ustez guraso izatea ez da eskubidea, beraz ezin baduzu, hobe da adoptatzea ama txiroak esplotatzea baino.*

.....

.....

.....

Eztabaidarako baliabideak

Eztabaidan bete betean sartu aurretik, horrelako komunikazio egoeretan agertu ohi diren esamoldeak gogoratzeko jarri bakoitzaren funtzioa zein den.

	Adostasuna	Adostasun eza	Beste funtzioak
zurekin guztiz ados nago			
ez dut garbi ikusten zuk esan duzuna			
ez moztu mesedez			
zera esan nahi dut...			
arrazoi osoa duzu			
ez dut uste horrela denik			
bat nator zuk esandakoarekin			
laburbilduz			
ez zait zilegi iruditzen			

Uste dut...

Eztabaidan behin eta berriro azalduko dira “uste dut” “esan duzu”... motako esaldiak eta horiei lotuta menpekoak . Hauek lotzeko moduak, jakina, ez dira beti berdinak.

Osatu esaldiak eskatzen duen lotura atzizkia.

*Adibidea: Niri iruditzen zait azkenean diru truke egiten diren subrogazio horiek badaukate**la** atzean arazo larri bat eta da emakume txiroak kontratatzen dire**la** eta, gainera, emakumeak ez daukate**la** kontratu horren kontrolik.*

- 1) Nik **uste dut** haurdunaldi subrogatua ez litzateke___ legezatu behar.
- 2) Epailak **ez du esan** intentziazko gurasoek **zer** eskubide dute___
- 3) **Ez zaigu iruditzen** legeak hori esaten du___
- 4) Orain arte ez dut esan, baina **jakina da** ni legeztatzearen alde nago___
- 5) **Ez duzu ulertu** nik **zer** esan du___
- 6) Zer **esan nahi zenuen**, legeztatzearen kontra gauden guztiok atzerakoiak gara___ eta emakumeek eskubideen kontra gaude___?
- 7) Ez dago froga zientifikorik **esateko** haurdunaldi subrogatu bidez jaiotako umeek arazo gehiago dituzte___

-eLA
-eNIK
-eN

Atzizkiak aukeratzeko **gakoa** non dago, perpaus nagusian, menpekoan ala bietan?

Eztabaida

Orain artekoaren arabera, **haurdunaldi subrogatuaren** inguruan hiru jarrera nagusi daude: 1) guztiz debekatzea; 2) haurdunaldi altruista baimentzea; 3) Libre uztea beste edozein kontraturen antzera.

Honezkero, edo aspalditik, zeure iritzia baduzu. Zein da? Zein argudioetan oinarritzen zara? Zein adibide eman ditzakezu? Nola lortuko duzu entzuleen atxikimendua, enpatia? Zein esperientzia pertsonal aipa zenezake?

Ikasgelan **eztabaida** bat antolatu (talde osoan edo txikiagoetan). Eztabaida, telebistetako **show-politiko**en antzera egingo da. Bakoitzak bere ustea azalduko du gehienez minutu bat iraungo duen txandan.

Guztien iritzia entzun ondoren, bakoitzak erantzun bat emateko txanda bat izango du, nahi duenari erantzungo dio, ikaskide bati ala bati baino gehiagori. Bukatzeko erantzuna erantzuteko aukera izango du nahi duenak.

Minutu batzuk dituzue zuen azalpeneko apunteak prestatzeko.

Nahi baduzu, eman idatziz zure iritzia Berriako foroan. Hemen duzu helbidea:
http://www.berria.eus/paperekoa/1943/002/001/2017-05-21/amaren_sabela.htm



Transkripzioak

Itziar Alkortak

Maite Artola: Bioetikaren batzordeak, nolahi ere, aintzat hartzen duena da, argudio bezala debekua alde egiteko, emakumearen esplotazioa dakarrela.

Itziar Alkorta: Bai, bi argudio mota erabiltzen ditu: batetik, dedikatzen dizkio orri pila bat amatasun subrogatu komertzialari, diru-truk egiten denari, eta hor, besteak beste, amaren esplotazioa aipatzen du, baina baita ere, umeen gaineko salmenta bat bezalakoa dela esaten du, emakumeen interesen kontrakoa dela, orokorrean eta abar.

Baina, orri gehiago dedikatzen dizkio oraindik amatasun subrogatu altruistari: zergatik hori ere debekatu. Nik uste dut benetan...

Maite Artola: Ez da hortaz diru truke egiten diren subrogazioak, baizik eta baita modu altruistan egiten direnen debekua ere.

Itziar Alkorta: Debekuak orokorra izan beharko luke batzorde horren arabera. Eta nik uste dut, ahuleziarik handiena txostenean, hain zuzen ere, debekua altruista horren argudioetan dagoela. Izan ere, erabiltzen dituen argudio batzuk ez dira derrigor balekoak. Aipatzen du horrelako akordio altruistetan non emakume batek ezagun bati edo familiako bati haurdunaldia musu-truk emango diola proposatzen dionean, horrek derrigor kontrako interesak jartzen dituela jokoan. Alegia, emakume haurdun horren interesak eta gurasoen interesak eta umeen interesak elkarren kontrakoak omen dira, txostenaren arabera. Eta nik ez dut hori ikusten, Britania Handian esate baterako.

Maite Artola: Nola dago Britania Handian?

Itziar Alkorta: Hain zuzen ere, Britania Handian duela 5 bat 6 urte legeztatu zuten eta bertan epaile batek artatzen duen prozesua da. Umeak berez jaiotzen diren edo erditzen diren amarenak dira, baina gero emakume horrek aukera dauka, nahi baldin badu, erregistroan, quasi-adopzio baten bitartez, gurasoen izenean erregistroan jartzeko. Bertan emakumearen interesak erabat babesten dira.

Maite Artola: Diru truke izan edo diru gabe izan?

Itziar Alkorta: Beti diru gabe izan behar du, beti izan behar du dirurik gabekoa, altruista izan behar du. Eta, gainera, gurasoek badakite horretan sartzen direnean, gerta daitekeena dela, emakume horren askatasuna erabat errespetatuz, bada azkenean emakume horrek kontzientzian erabakitzea umea erregistroan bere izenean utziko duela, ez duela adopzioan emango. Beraz, nik ez dut ikusten eta Britania Handian ez da gertatu horrelako interes talkarik. Beste alde batetik, benetan kezkarriak iruditzen zaizkit etika batzorde horretan emakumearen interesaren babesaren izenean esaten diren hainbat gauza

Maite Artola: Esate baterako ?

Itziar Alkorta: Bueno, bada, azkenean emakumeari hitza eman baino, subrogazio altruistaz ari naiz, esaten da horrek beti azkenean emakumearen kontra joko duen zerbait izan behar duela eta nik ez dut erabat garbi ikusten.

Maite Alkorta: Itziar zuk ez zenuke hainbeste eragozpen izango, pentsatzen dut edo ulertzen dut, diru truke diren subrogazio bidezko haurdunaldi horiek debekatzea proposatzeko. Horretan ez zenuke hainbeste arazo izango, gehiago sortzen zaizkizu egoerak altruistak direnean, ez?

Itziar Alkorta: Niri iruditzen zait, benetan eta frogatuta dago, azkenean diru truke egiten diren subrogazio horiek badaukatela atzean arazo larri bat eta da emakume txiroak kontratatzen direla eta, gainera, emakumeak ez daukatela kontratu horren kontrolik. Normalen broker bat edo hirugarren bat izaten da hor negoziatzen egiten duena eta niri ez zait zilegia iruditzen eta batzordeari ere ez.

Noelia Osés

Guk hitz egin dugu "Son nuestros hijos" "Gure seme-alabak dira" elkarteko kideekin, Noelia Osesekin, hain zuzen ere. Hemen aipatu dituzuen argudio hainbati heldu dio berak, oso modu irmoan mintzatu zaigu ebazpenaren kontra. Entzun:

Noelia: Erabat kontra gaude eta, gainera, aipatu dituzten gauza guztiekin ez gaude ados. Eurak esaten duten gauza bat da umeari kalte egiten diola haurdunaldi subrogatuaren bidez jaiotzeak eta hori ez da egia, sinplemente, ez da egia. Ikerketa zientifikoak daude horri buruz eta frogatuta dago ume horiek ez dutela inolako kalterik sufritzen, areago, zioritsuak direla, besteak baino... besteak bezain zioritsuak. Orduan ez dago inolako frogarik ez ikerketarik esaten duena ume horiek inolako kalterik sufritzen dutenik, hori gezurra da.

Beste gauza bat eurak esaten dutena da, esplotazioa dela haurdunaldi subrogatua. Bada guk esaten duguna da, esplotazioa ekiditeko beti egiten dena da erregulatzea. Legeek esaten dute nola egin behar diren gauzak ondo egiteko. Esplotazioa nahi ez badugu, orduan arautu behar dugu nola egin behar den esplotaziorik gabe egiteko. Eta esplotaziorik gabe egitea posible da, zeren emakumeek kriterio nahikoa daukagu jakiteko horrelako gauza baten parte hartu nahi dugun edo ez. Esatea kasu guztietan esplotazioa dela, hori esatea da, emakumeak ez daukagula kriteriorik horrelako erabaki inportanteak hartzeko. Eta noski gu elkarte moduan eta ni emakume izanda ez nago batere ados horrekin.

Eta azkeneko gauza horrela, nabariena, eurak esaten dutena da mundu osoan debekatu behar dela. Nik, komite honek, ez dakit zer pentsatzen duen euren buruz, baina ez eurak ez estatuk ez inork ez dauka boterekerik mundu osoan ez hori, ez beste ezer debekatzeko.

Orduan, bada, laburbilduz, ez gaudela ados eta, gainera, esan dituzten gauza batzuk ez dira ezta egia ere.

Erantzunak

	Adostasuna	Adostasun eza	Beste funtzioak
zurekin guztiz ados nago		✓	
ez dut garbi ikusten zuk esan duzuna		✓	
ez moztu mesedez			✓
zera esan nahi dut...			✓
arrazoi osoa duzu	✓		
ez dut uste horrela denik		✓	
bat nator zuk esandakoarekin	✓		
laburbilduz			✓
ez zait zilegi iruditzen		✓	

1) Nik **uste dut** haurdunaldi subrogatua ez litzatekeela legezatu behar.

Perpau nagusia baieztapena eta menpekora ezezkora ► -la

2) Epailak **esan du** intentziazko gurasoek **zer** eskubide duten

Menpeko perpaua galdera edo zalantza da. ► -n

3) **Ez zaigu iruditzen** legeak hori esaten duenik

Perpau nagusia ezeztapena, menpekora baieztapena. ► -nik

4) Orain arte ez dut esan, baina **jakina da** ni legezatzearen alde nagoela

Perpau nagusia "jakina da", ez "ez dut esan"

5) **Ez duzu ulertu** nik zer esan dudana

Menpeko perpaua galdera edo zalantza da. ► -n

6) Zer **esan nahi zenuen**, legezatzearen kontra gauden guztiok atzerakoiak **garela** eta emakumeek eskubideen kontra gaudela?

Perpau nagusia dago galdera, menpekora baieztapena da. ► -la